

ATZERRITARREK EZAGUTZEN AL DUTE EUSKARA?

Deskribapena: Kike Biarritzen azaltzen da.

Kike: “Aizue, eta, turista gisa hona datozenek, zer dakite euskarari buruz? Ba, Biarritzen gaudela aprobetxatuz beraiei galdetuko diegu.”

Kike (ingelesez): “Nondik zatozte?”

Lehenengo turista bikotea (ingelesez): “Txinatik.”

Bigarren turista bikotea (ingelesez): “Manchestertik, iparraldean.”

Hirugarren turista bikotea (italieraz): “Comotik gatoz, Italia iparraldetik.”

Laugarren turista bikotea (frantsesez): “Txinatik, Pekinetik.”

Turista laukotea (frantsesez): “Estrasburgo ondotik, Savernetik.”

Bosgarren turista bikotea (frantsesez): “Bordeleko eskualdetik.”

Kike (frantsesez): “Zer dakizue euskarari buruz?”

Bosgarren turista bikotea (frantsesez): “Ezer ez.”

Kike (frantsesez): “Eta zer dakizue euskarari buruz?”

Turista hirukotea (frantsesez): “Ezer gutxi.”

Kike (ingelesez): “Zerbait al dakizue euskarari buruz?”

Lehenengo turista bikotea (ingelesez): “Euskara? Ez.”

Hirugarren turista bikotea (italieraz): “Badakit euskara hitz egiten dela, Espainian bezala eta Miarritze eta inguruak ere Euskal Herria osatzen dutela.”

Bigarren turista bikotea (ingelesez): “Ulertzeko oso zaila dela.”

Turista laukotea (frantsesez): “Karteletan izenak euskaraz ere azpian idatzita daudela harritu nau.”

Bigarren turista bikotea (ingelesez): “Errepideko seinaleak euskaraz daudela uste dugu. Baina hitzak oso zailak dira ahoskatzeko ingeles batentzat.”

Bosgarren turista bikotea (frantsesez): “Hizkuntza erabat hermetikoa da, ez da ezer ulertzen.”

Laugarren turista bikotea (frantsesez): “Ibiltzen zoazela, kartelak euskaraz ikusten dira. Baina ezin dira ahoskatu...”

Hirugarren turista bikotea (italieraz): “Hizkuntza berezia da, jatorririk gabekoa. Ez dakite nondik datorren. Ez dator latinetik, ezta beste erro linguistikotik.”

Turista laukotea (frantsesez): “Hizkuntza gorde nahi da. Alsazian alsaziera gorde nahi den bezala, hemen euskara gorde nahi da.”

Deskribapena: “Kikek Biarritzetik Donostiara salto egiten du eta Donostiako Kontxa pasealekuan agertzen da.”

Kike: “Eta Biarritzen erantzun hauek jaso ondoren, orain, Donostiara joko dugu. Ba, ea hemen zein harrapatzen dugun.”

Kike (frantsesez): “Nongoak zarete?”

Lehenengo turista bikotea (frantsesez): “Pabekoak.”

Bigarren turista bikotea (ingelesez): “Brasildik. Brasildarrak gara, bai.”

Lehenengo turista hirukotea (ingelesez): “Wyomingetik.”

Turista laukotea: “Nowe Miasto Lubawskie.”

Bigarren turista hirukotea (ingelesez): “Koreatik.”

Hirugarren turista bikotea (frantsesez): “Belgikakoak gara, Anberesetik hurbil.”

Laugarren turista bikotea (frantsesez): “Bretainakoak gara.”

Kike (frantsesez): “Eta badakizue gaztelaniaz aparte hemen zer hizkuntza hitz egiten den?”

Laugarren turista bikotea (frantsesez): “Katalana? Katalana, bai.”

Turista taldea: “Katalana. Katalana.”

Bigarren turista hirukotea (ingelesez): “Katalana? Euskara!”

Kike (ingelesez): “Euskara, bai, oso ondo! Eta zer dakizue euskarari buruz?”

Bigarren turista hirukotea: “Agur!”

Kike: “Agur!”

Lehenengo turista bikotea: “Egun on!”

Kike: “Egun on!”

Lehenengo turista bikotea: “Mila esker!”

Kike: “Mila esker!”

Lehenengo turista bikotea: “Bai?”

Hirugarren turista bikotea (frantsesez): “Badakit San Sebastian euskaraz Donostia dela. Hori da dakidan guztia.”

Bigarren turista hirukotea: “Kaixo!”

Kike: “Kaixo!”

Kike (espainieraz): “Badakizue espainieraz aparte hemen zer beste hizkuntza hitz egiten den?”

Bigarren turista bikotea: “Euskara.
Euskara, bai.”

Kike (ingelesez): “Zer dakizue euskarari buruz?”

Lehenengo turista hirukotea (ingelesez): “Asko dakigu, oso zaharra da, agian Paleolito garaitik dator.”

Bigarren turista bikotea (gaztelaniaz): “Zailegia dela...Inork ez daki bere jatorria... Ez da frantsesa eta espainieraren nahasketa bat.. Inork ez daki zer gertatzen den, erabat ezberdina da.”

Turista laukotea: “Euskara.”

Kike (ingelesez): “Nolatan dakizu?”

Turista laukoteko gizon bat (ingelesez): “Nire emazteagatik... etorri hona!”

Kike: “Ah! Hemengoa zara zu?”

Turista laukoteko emakume bat: “Bai, lasartearra.”

Kike: “Eta han bizi zarete edo hemen?”

Turista laukoteko emakume bat: “Bai Ameriketara, Nueva Yorken.”

Lehenengo turista hirukotea (ingelesez): “Badakit “Ez”. Erraza da. Ez.”

Kike: “Ez.”

Kike: “Eskerrik asko!”

Bigarren turista hirukotea: “Eskerrik asko! Eskerrik asko! Agur! Agur!”